- 1b) Erregistratu daitezke nahiz izanez gero.
- 1c) Ezin izango dira inoiz desegin.
- 1d) Erregistroan inskribatu beharko dira, publizitate-ondoreetarako bakarrik.

2 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA, BOTERE PUBLIKOEN HEZKUNTZA-SISTEMA IKUSKATU ETA HOMOLOGATUKO DUTE, LEGEEN BETETZEA BERMA DADIN.

- 2a) Bai.
- 2b) Ez.
- 2c) Batzuetan.
- 2d) Ikastetxeek eskatzen badute.

3 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA, GASTU PUBLIKOEN AURRE EGITEA:

- 3a) Denek lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera.
- 3b) Berdintasun-printzipioetan oinarrituko da.
- 3c) Progresibitate-printzipioetan oinarrituko da.
- 3d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

4 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA, BOTERE PUBLIKOEN:

- 4a) Hezkuntza publikoa sustatuko dute batez ere.
- 4b) Espainian lan egiten duten atzeritarren ekonomia-arloko eta gizarte-arloko eskubideak zainduko dituzte.
- 4c) Baliabide natural guztien erabilera arrazionala bultzatuko dute.
- 4d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

5 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA:

- 5a) Botere publikoek enpresa-askatasuna bermatzen eta babesten dute merkatu-ekonomiaren eremuan, bat etorri ekonomia orokorraren eskakizunekin.
- 5b) Botere publikoek enpresa-askatasuna bermatzen eta babesten dute esku-hartutako ekonomiaren eremuan, bat etorri ekonomia orokorraren eskakizunekin eta produktibitatearen defentsarekin.
- 5c) Botere publikoek enpresa-askatasuna bermatzen eta babesten dute merkatu-ekonomiaren eremuan, bat etorri enpresaburuen eskakizunekin eta produktibitatearen defentsarekin.
- 5d) Botere publikoek enpresa-askatasuna bermatzen eta babesten dute merkatu-ekonomiaren eremuan, bat etorri sindikatuen eskakizunekin eta produktibitatearen defentsarekin.

- 6** **39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADIERAZI ERANTZUN OKERRA. PERTSONEK ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN AURREAN JARDUTEKO GAITASUNA DUTE, ETA ESKUBIDE HAUEK DITUZTE, BESTEAK BESTE, HAIEKIKO HARREMANETAN:**
- 6a) Lege honetan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako aurreikusitako bitartekoak lortzea eta erabiltzea.
- 6b) Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea, lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera.
- 6c) Eskubide guztien erantzun espresua eta horren jakinarazpena izatea.
- 6d) Administrazio publikoen eta agintarien erantzukizuna eskatzea, legez hala dagokionean.
-
- 7** **39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin HARREMAN ELEKTRONIKOA IZATEKO ESKUBIDEA ETA BETEBEHARRA.**
- 7a) Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikokoak erabili edo ez.
- 7b) Nortasun juridikorik gabeko entitateak ez daude behartuta administrazio publikoekiko harremanetan bitarteko elektronikokoak erabiltzera.
- 7c) Erregelamenduz, administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako.
- 7d) Pertsona juridikoak ez daude behartuta administrazio publikoekiko harremanetan bitarteko elektronikokoak erabiltzera.
-
- 8** **4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. ZER PRINTZIPIORI EGITEN DIO ERREFERENTZIA HONAKO HONEK: EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERA, BALDINTZA, JOMUGA ETA BEHARRIZAN EZBERDINAK MODU SISTEMATIKOAN KONTSIDERATZEA, ETA, HORRETARAKO, EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO XEDEA DUTEN HELBURU ETA JARDUKETA ZEHATZ BATZUK TXERTATZEA.**
- 8a) Tratu berdina.
- 8b) Aukera-berdintasuna.
- 8c) Genero-ikuspegiaren integrazioa.
- 8d) Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.
-
- 9** **4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. ZER PRINTZIPIORI EGITEN DIO ERREFERENTZIA HONAKO HONEK: NEURRI EGOKIAK HARTZEA EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA OREKATUA LOR DADIN ERABAKIAK HARTZEKO EREMU GUZTIETAN.**
- 9a) Ordezkaritza orekatua.
- 9b) Aukera-berdintasuna.
- 9c) Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea.
- 9d) Tratu berdina.

- 10** **4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA.**
ORDEZKARITZA OREKATUA IZANGO DA LAU KIDE BAINO GEHIAGO DITUZTEN EPAIMAHAIETAN EDO ANTZEKO ORGANOETAN SEXU BAKOITZAK HONAKO ORDEZKARITZA HAU BALDIN BADU GUTXIENEZ:
- 10a) 20%
10b) 30%
10c) 40%
10d) 50%
- 11** **1978KO KONSTITUZIOA.**
ZER PRINTZIPIOREN ARABERA DIHARDU ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK?
- 11a) Efikazia, hierarkia eta deszentralizazioa.
11b) Kontzentrazioa eta koordinazioa.
11c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
11d) a) eta b) erantzunak okerrak dira.
- 12** **40/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOARENA.**
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN HONAKO PRINTZIO HAUEK ZAINDU BEHARKO DITUZTE BEREN JARDUKETAN ETA HARREMANETAN:
- 12a) Fede ona, konfiantza legitimoa eta leialtasun instituzionala.
12b) Finkatutako helburuak efikaziaz betetzea.
12c) Kudeaketa publikoagatiko erantzukizuna.
12d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 13** **40/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOARENA.**
ADMINISTRAZIO PUBLIKO BAKOITZAK HONELA DIHARDU BERE HELBURUAK BETETZEKO:
- 13a) Nortasun juridiko bakarrez.
13b) Nortasun juridiko pribatuz.
13c) Nortasun juridiko mugatuz.
13d) Nortasun juridiko fisikoz.
- 14** **40/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOARENA.**
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN, HAIEN ESKUMENEN BARRUAN DIHARDUTELA, ESKUBIDE INDIBIDUALAK EDO KOLEKTIBOAK GAUZATZEA MURRIZTEN DUTEN NEURRIAK EZARTZEN BADITUZTE EDO JARDUERA BAT EGITEKO BETEKIZUNAK BETETZEA ESKATZEN BADUTE:
- 14a) Organismo publikoekin elkarlanean eta modu koordinatuan jardun beharko dute jarduera fiskalizatzeko.
14b) Proporzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dute, eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu.
14c) Interes pribatua babesteko beharrezkoa dela arrazoitu beharko dute.
14d) Beharrezko iritziz gero, lortutako ondorio eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte.



15 40/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOARENA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN, ZEINEK BERE ESKUMENEN BARRUAN, BEHARREZKOAK DIREN EGITATEAK, EGINTZAK, ELEMENTUAK, JARDUERAK, ZENBATESPENAK ETA GAINERAKO INGURUABARRAK BEGIRATU, EGIAZTATU, IKERTU ETA IKUSKATU AHALKO DITUZTE, HONAKO HAUETAN JASOTAKO MUGEKIN:

- 15a) Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuan.
- 15b) Urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean.
- 15c) Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan.
- 15d) Datu pertsonalak babesteko legerian.

16 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN INTERESDUN DIRELA JOTZEN DA:

- 16a) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
- 16b) Prozeduran har daitezkeen erabakiek uki ditzaketan eskubideak dituztenak, nahiz eta beraiek hasiera eman ez prozedurari.
- 16c) Prozedura sustatu dutenak eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura.
- 16d) Interes sozialak ordezkatzeko dituzten elkarteek bakarrik.

17 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATEAN INTERESDUN DENAK ESKUBIDEA DU:

- 17a) Jakitea nola doazen interesdun den prozedurarekin lotuta dauden prozeduretako izapidetzeak.
- 17b) Aholkulari batek lagundurik jardutea beren interesen alde egiteko komeni zaiela deritzotenean.
- 17c) Ezagutzea zer identitate duten dena delako espedientearen xede den gaian eskudun diren administrazio publikoetako agintariek.
- 17d) Datuak eta dokumentuak ez aurkeztea prozedurarako informaziorik ez dakartela deritzotenean.

18 40/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOARENA. ABSTENITZEKO ARRAZOA DA AHAIDETASUNA IZATEA INTERESDUNETAKO EDOZEINEKIN, ENTITATE EDO SOZIJETATE INTERESDUNEN BATEKO ADMINISTRATZAILEEKIN, BAI ETA PROZEDURAN ESKU HARTZEN DUTEN AHOLKULARI, LEGEZKO ORDEZKARI EDO MANDATARIEKIN ERE, BALDIN ETA AHAIDETASUN HORI BADA:

- 18a) Hirugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo lehen gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa.
- 18b) Laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa.
- 18c) Bigarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa.
- 18d) Lehen gradurainoko odolkidetasunezkoa edo lehen gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa.

- 19 40/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOARENA.
ABSTENITZEKO ARRAZOI BEZALA AURREIKUSITAKO KASUETAN, INTERESDUNEK ERREKUSAZIOA AURKEZ DEZAKETE:**
- 19a) Ahoz edo idatziz, zein arrazoitan oinarritzen den adierazita..
19b) 15 eguneko epean, errekusatzen duten pertsonak prozeduran parte hartzen duela jakiten dutenetik aurrera zenbaturik.
19c) Prozeduraren izapidetzearen edozein unetan.
19d) Entzunaldi-izapidetza aurretik.
- 20 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
ZEIN ADMINISTRAZIO-EGINTZA ARRAZOITU BEHAR DIRA EGITATEEN ETA ZUZENBIDEKO OINARRIEN AIPAMEN LABURRA EGINEZ?**
- 20a) Eskubide objektiboak edo interes partikularrak mugatzen dituzten egintzak.
20b) Interesdunek proposaturiko probak onartzen dituzten egintzak.
20c) Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak mugatzen dituzten egintzak.
20d) Administrazio publikoek proposaturiko probak baztertzen dituzten egintzak.
- 21 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
NOLA ARRAZOITUKO DIRA HAUTAKETA-PROZESUEI ETA LEHIA-KONKURRENTZIAKO PROZEDUREI AMAIERA EMATEN DIETEN EGINTZAK?**
- 21a) Bat etorritik deialdietako gaitegiek eta hautaketa-prozesuaren diseinuak erregulatzen dutenarekin.
21b) Bat etorritik Enplegatu Publikoaren Oinarritzako Estatutuarekin.
21c) Bat etorritik administrazio publiko bakoitzak ezartzen duenarekin.
21d) Bat etorritik deialdia erregulatzeko arauak xedatutakoarekin.
- 22 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
ADMINISTRAZIO-ORGANOEK ESKUMENA AHOZ BALIATZEN DUTENEAN, EGINTZAK IDATZIZ JASOTA GERATU BEHAR BADU:**
- 22a) Mezua ahoz jaso duenaren goragoko organoko titularrak idatzi eta jasoko du.
22b) Mezua ahoz jaso duen beheagoko organoko titularrak edo funtzionarioak idatzi eta jasoko du.
22c) Administrazio-egintzak idatziz egin behar dira beti.
22d) Ahozko egintzak ez dira idatziz jaso behar, grabatzen badira betiere.
- 23 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
IZAERA BEREKO ADMINISTRAZIO-EGINTZA BAT BAINO GEHIAGO EMAN BEHAR DENEAN:**
- 23a) Denak egintza bakarrera bil daitezke.
23b) Ezin izango dira denak egintza bakarrera bildu.
23c) Denak egintza bakarrera bil daitezke, hala eskatzen badute interesdunek.
23d) Bitarteko elektronikoen bidez eman beharko dira beti.

24 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN ANTOLAMENDUA:

- 24a) Honela dago eraturta: administrazio-prozedura bateko dokumentuen hurrenkerari eta espediente horrek bideratzen diren gainerako espedienteekiko duen hurrenkerari buruzko printzipio-multzoaren arabera.
- 24b) Administrazio-prozeduraren fase bat da.
- 24c) Administrazio-prozeduraren fase guztiei egiten die erreferentzia.
- 24d) Espedientearen instrukzio-organo gisa izendatutako pertsonen ahalmena da, espedientearen parte hartzen duten interesdunei eta administrazio-organoei beharrezko diren izapideak betearazi ahal izateko.

25 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAKO EPE-ZENBAKETARI DAGOKIONEZ:

- 25a) Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira egun baliodunak direla ulertuko da.
- 25b) Epeak ezin dira egun naturaletan adierazi, non eta ez den hala adierazten, kasu zehatz horretarako, Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean.
- 25c) Epeak egun baliodunetan adierazten direnean, zenbaketatik aparte geratuko dira soilik igandeak eta jai-egunak.
- 25d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

26 40/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOARENA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ONDARE-ERANTZUKIZUNARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA:

- 26a) Partikularren eskubidea izango da administrazio publikoen kalte-ordaina jasotzea euren ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu anormalaren ondorioz sortu bada.
- 26b) Partikularren eskubidea izango da administrazio publikoen kalte-ordaina jasotzea euren ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz sortu bada.
- 26c) Kalte-ordainak jasoko dira baldin eta administrazio-egintzak eta -xedapenak administrazio-bidean edo bide judizialean deuseztatzen badira.
- 26d) Ez da kalte-ordainik jasoko partikularrek legearen arabera egin behar juridikoz jasan behar dituen kalteak direnean.

27 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNEN PROZEDURAN, ALEGATUTAKO KALTEAK:

- 27a) Ekonomikoki neurtuta egon behar du, partikularrak bere erreklamazioa jartzean zehatz-mehatz finkatua.
- 27b) Ekonomikoki neurgarria izan behar du.
- 27c) Kalte hipotetiko bat izan daiteke, betiere kalte hori nozitzeko probabilitatea handia denean eta kalte hipotetiko horrek entitate nahikoa duenean; nolana ere, kalte-ordaina emango da bakar-bakarrak kaltea gertatu ondoren.
- 27d) Hainbat taldek kolektiboki nozitutako kaltea izan daiteke, non ezin den zehaztu pertsona batek edo talde batek benetan jasandako kaltea; kasu horietan, kalte-ordaina indibidualki ezarri behar da, eragindakoen artean adostuta.

28 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. PROZEDURA SALAKETA BATEN ONDORIOZ HASTEAK:

- 28a) Interesdunen eskariz hasteko prozedura da; kasu honetan, salatzaileen eskariz.
- 28b) Ofizios hasteko prozedura da; izan ere, salaketa bat aurkezten denean administrazioak dagokion prozedura hasi behar du, erantzukizunak arazteko.
- 28c) Ofizios hasteko prozedura da; izan ere, salaketa bat aurkezten denean administrazioak erabaki behar du prozedura hasi ala ez.
- 28d) Administrazio-prozedura hasteko kasu berezia da, ofizios hastekoaz eta interesdunen eskariz hastekoaz gainera.

29 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. PARTIKULAR BATEK PROZEDURA HASTEKO EGITEN DUEN ESKARIAK EZ BADITU BETETZEN PROZEDURARI BURUZKO LEGERIAK EDOZEIN PROZEDURARAKO EZARTZEN DITUEN BETEKIZUN OROKORRAK:

- 29a) Eskaria ez-aurkeztutzat joko da, salbu eta eskariak aplikagarri den prozeduran eskatutako betekizun espezifikoak betetzen dituenean.
- 29b) Interesdunari errekerimendua egin ahal izango zaio hamar eguneko epean, falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.
- 29c) Interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.
- 29d) Interesduna eskaeran atzera egindakotzat joko da, aurretiazko ebazpena eman ondoren administrazio-prozeduraren legerian aurreikusitako moduan.

- 30 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN INTERESDUN DIRENEN ALEGAZIOEI DAGOKIENEZ:**
- 30a) Interesdunek prozeduraren edozein urratsetan aurkeztu ahal izango dituzte, betiere entzunaldi-izapidea egin baino lehen.
- 30b) Interesdunek prozeduraren edozein urratsetan aurkeztu ahal izango dituzte, entzunaldi-izapidea egin baino lehen, salbu eta izapide-akatsi buruzko alegazioen kasuan, horiek, gertatu, eta luzatu ezineko hamar egun baliodunen barruan aurkeztu beharko baitira.
- 30c) Prozeduraren instrukzio-egileak kontuan hartu beharko ditu, beharrezko diren proben proposamena adostu ahal izateko.
- 30d) Prozeduraren instrukzio-egileak kontuan hartu beharko ditu, interesdunek proposaturiko proben egokitasuna juzgatu ahal izateko.
- 31 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO-PROZEDURAKO TXOSTENAK:**
- 31a) Aukerakoak izango dira, hau da, espezializatuak eta teknikoak.
- 31b) Lotesleak izango dira, baina bakarrik hala ezartzen badu lege-xedapen batek.
- 31c) Lotesleak izanago dira, salbu eta lege-xedapen batek kontrakoa ezartzen duenean.
- 31d) Lotesleak izan daitezke, baldin eta hala xedatzen badu instrukzio-egileak.
- 32 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
ADMINISTRAZIO-PROZEDURARI AMAIERA EMATEN DION EBAZPENEAN:**
- 32a) Erabakiko dira bai interesdunek planteatutako gai guztiak, bai eta instrukzio-egileak planteatutakoak ere.
- 32b) Ezin izango da okerragotu prozedura hasten duen interesdunaren hasierako egoera.
- 32c) Arrazoituta egongo da beti.
- 32d) Adierazi beharko da zer errekurtso jar daitezkeen ebazpenaren kontra eta zer epe dauden errekurtso horiek jartzeko eta horien gaineko ebazpena emateko.
- 33 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
ADMINISTRAZIOA EBAZPENA EMAN GABE GELDI DAITEKE PROZEDURA BATEAN:**
- 33a) Kasuari aplikatu dakioken lege-aurreikuspen espresu nahikorik ez dagoen kasuan.
- 33b) Prozedurarekin jarraitzea materialki ezinezkoa denean.
- 33c) Prozedura premiatu zuen interesdunak atzera egiten duen kasuan.
- 33d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

- 34 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
ADMINISTRAZIOAK ATZERA EGIN DEZAKE PROZEDURA BATEAN:**
- 34a) Arrazoitzen badu prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauen arabera eta ez badio eragiten interes orokorrari.
- 34b) Bakar-bakarrik dena delako prozeduraren xedeari edo helburuei nabarmen eragiten dion legegintzaldi-aldaketa dagoenean.
- 34c) Egiaztatzen denean ezen ekonomikoki astunagoa dela prozedurarekin jarraitzea interesdunaren eskaera bere horretan onartzea baino.
- 34d) Administrazioak ofizioz hasitako prozeduretan bakarrik egin dezake atzera.
- 35 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
ADIERAZI ERANTZUN OKERRA.**
- 35a) Bai atzera egitea, bai uko egitea, gauzatu daitezke jasota geratzeko edozein bitartekoren bidez eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera behar diren sinadurak edukiz gero.
- 35b) Administrazio-prozedura batean atzera egiteak eta uko egiteak ez die eragingo prozedura hasi bai, baina egintza horiek formulatu ez dituzten interesdunei.
- 35c) Atzera egiteak eta uko egiteak ezin izango dio bakarrik eragin egintza horiek formulatu dituen interesdunari.
- 35d) Atzera egitea eta uko egitea bere horretan onartuko dira beti.
- 36 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN IRAUNGITZEARI DAGOKIONEZ:**
- 36a) Prozedura iraungi daiteke interesdunak izapide bat ez egite hutsagatik, batez ere izapide hori ezinbestekoa bada ebazpena emateko.
- 36b) Izapideak ez egite horrek ez du beste ondorioz izango izapide horretarako eskubidea galtzea baino.
- 36c) Administrazio-prozedura iraungita, beste prozedura bat hasi daiteke baldin eta ez bada preskripziorik gertatu.
- 36d) Prozedura iraungiek gelditu egingo dute preskripzio-eparearen zenbaketa.
- 37 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA.
NOIZTIK AURRERA IZANGO DITUZTE ONDORIOAK ADMINISTRAZIO-EGINTZEK?**
- 37a) Ematen den egunetik aurrera beti.
- 37b) Egintzak ezartzen duen egunetik aurrera.
- 37c) Egintzak ezartzen duen egunetik aurrera eta, data ez bada espresuki aurreikusten, egintzaren izaeraren eta edukiaren arabera dagokion egunetik aurrera.
- 37d) Atzeraeraginez, salbuespenez.

- 38 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEAREN LEGERIAN AURREIKUSITAKO BETEKIZUNEN BAT BETETZEN EZ DUTEN JAKINARAZPENAK:**
- 38a) Ez dute eraginik izango; egintzak baliozko izaten jarraituko du, baina bete gabeko betekizuna bete beharko da dagozkion ondorioak izateko.
- 38b) Ondorioak izango dituzte baldin eta egintzaren testu osoa agertzen bada eta interesdunak jakinarazpenaren xedea eta haren irismena zein diren badakiela erakusten duen jarduketaren bat egiten badu.
- 38c) Ondorioak izango dituzte baldin eta egintzaren testu osoa badute eta jakinarazpena egiten saiatu direla jasota badago.
- 38d) Ondorioak izango dituzte, edozein kasutan, egintza edo ebazpena eman zenetik sei hilabete igaro ondoren, betiere egintzaren testu osoa agertzen bada.
- 39 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO-EGINTZEN JAKINARAZPENAK:**
- 39a) Jakinarazpena egin izanaren egiaztatpena espedientean sartu behar da bakarrik jakinarazpena baztertua izan bada.
- 39b) Ofizioz hasitako prozeduretan, eta prozedura hasteko bakar-bakarrik, administrazio publikoek interesdunaren egoitzari buruz udal-errolan jasotako datuak eskuratu ahal izango dituzte, Estatistikako Institutu Nazionalaren datu-baseetan kontsulta eginda
- 39c) Jakinarazpena bitarteko elektronikoa ezberdinen bidez egiten bada, jakinarazpen-datatzat hartuko da interesdunak espresuki hautatutako bitartekoaren bidez egindakoa.
- 39d) Administrazio-prozeduraren legeriaren arabera, administrazio-egintzen edo ebazpenen jakinarazpena egiteko, ahal dela interesdunak aukeraturiko bitartekoaren bat erabiliko da.
- 40 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. JAKINARAZPEN ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALEAN ARGITARATUTAKO IRAGARKI BATEN BIDEZ EGITEKO:**
- 40a) Interes orokorra izan dezakeen edozein prozeduratan egin daiteke, jakinarazpen elektronikoa ordeztuz edo posta bidez.
- 40b) Prozedurako interesdunak ezezagunak direnean egin daiteke, edo jakinarazpena egiten saiatu baina huts egin bada.
- 40c) Horren ordeztuz, iragarki bat argitaratu daiteke autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean edo interesdunaren helbidea agertzen den probintzian.
- 40d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.
- 41 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ALDIZKARI OFIZIALETAKO IRAGARKIEN BIDEZ JAKINARAZTEAK ESKUBIDE EDO INTERES LEGITIMOAK KALTETZEN DITUENEAN:**
- 41a) Prozeduraren instrukzio-egileak ezin izango du aldizkarietako iragarkietara jo jakinarazpenak egiteko, eta espedientean jasota utziko du zergatik ezin izan diren iragarkiak argitaratu.
- 41b) Soil-soilik egintzaren edukiaren berri labur bat argitaratuko da, eta hartan adieraziko du interesdunek nora jo dezaketen eduki osoaren berri jakiteko.
- 41c) Iragarkiak argitaratzeko, baimen judizial bat lortu beharko da.
- 41d) Iragarkiak argitaratzeko, baimena lortu behar da, autonomia-erkidegoko datuak babesteko agentziarena edo, hori ezean, Espainiako Datu Babeserako Agentziarena.

42 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. EBAZTEKO BETEBEHARRA:

- 42a) Administrazioa behartuta dago ebazpen espresua ematera eta jakinaraztera bakar-bakarrik interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan.
- 42b) Administrazioa behartuta dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua. Jakinarazpen hori aukerakoa da Administrazioarentzat.
- 42c) Administrazioa behartuta dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua, salbu eta Legean ezarritako salbuespenezko kasuetan.
- 42d) Ofizioz hasitako prozeduretan bakarrik dago administrazioa behartuta ebazpen espresua ematera.

43 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. EZ DAGO EBAZPEN ESPRESURIK EMAN BEHARRIK:

- 43a) Ofizioz hasitako prozeduretan.
- 43b) Prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen den kasuetan.
- 43c) Eskubide eta askatasun publikoak baliatzeko prozeduretan.
- 43d) Adierazitako prozedura guztietan ez dago ebazpenik eman beharrik.

44 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. NON AURKEZ DITZAKETE INTERESDUNEK ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ORGANOEI ZUZENDUTAKO DOKUMENTUAK?

- 44a) Administrazioaren edo organismo hartzailearen erregistro elektronikoan, baita haiekin hitzartutako edozein administrazio edo organismoren erregistro elektronikoetan ere.
- 44b) Elektronikoki aurkezten direnean, Correos-eko bulegoetan.
- 44c) Ordezkaritza diplomatikoetan eta kontsulatuetakako bulegoetan, Espainiak atzerrian dituenetan eta atzerritarrek Espainian dituztenetan.
- 44d) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

45 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EMAN, ETA INFORMAZIO HUTSERAKO ARGITARATZEN DIREN DOKUMENTU ELEKTRONIKOEN, ETA OROBAT ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTE BATEN PARTE EZ DIRENEK:

- 45a) Sinadura elektronikoa behar dute.
- 45b) Sinadura behar dute.
- 45c) Sinadura elektronikoa beharko dute bakar-bakarrik hala ezartzen bada prozedura erregulatzen duen araudian.
- 45d) Ez dute sinadura elektronikorik behar.

- 46** **39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADIERAZI ERANTZUN OKERRA. INTERESDUNEK DOKUMENTUAK EZ AURKEZTEKO ESKUBIDEA DUTE:**
- 46a) Beste administrazioen baten eskuetan badaude.
46b) Beste administrazioen batek eginak badira.
46c) Diharduen administrazioarekin hitzartutako beste administrazioen baten eskuetan badaude.
46d) Soil-soilik diharduen administrazioak eginak badira.
- 47** **39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. INTERESDUNEK JATORRIZKO DOKUMENTUAK AURKEZTU BEHAR AL DITUZTE?**
- 47a) Bai, beti.
47b) Ez, inoiz ere ez.
47c) Ez, salbu eta aplikatu daitezkeen araudian ezarritako salbuespenak.
47d) Bai, salbu eta aplikatu daitezkeen araudian ezarritako salbuespenak.
- 48** **39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. NORTZUK DIRA ADMINISTRAZIOAN AURKEZTUTAKO DOKUMENTUEN EGIAZKOTASUNAREN ERANTZULE?**
- 48a) Interesdunak.
48b) Diharduen Administrazioa.
48c) Interesdunak eta diharduen Administrazioa.
48d) Interesdunak eta haien legezko ordezkariak.
- 49** **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 ERREGELAMENDUA, 2016KO APIRILAREN 27KOA, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ PERTSONA FISIKOEN BABESARI ETA DATU HORIEN ZIRKULAZIO ASKEARI BURUZKOA. NORK ZEHAZTEN DITU DATU-TRATAMENDUAREN HELBURUAK ETA BITARTEKOAK?**
- 49a) Tratamenduaren arduradunak.
49b) Tratamendu-eragileak.
49c) Interesdunak.
49d) Kontrol-agintariak.
- 50** **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 ERREGELAMENDUA, 2016KO APIRILAREN 27KOA, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ PERTSONA FISIKOEN BABESARI ETA DATU HORIEN ZIRKULAZIO ASKEARI BURUZKOA. "INTERESDUNAREN ADOSTASUNA": NOLA ONARTZEN DU INTERESDUNAK BERE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA?**
- 50a) Deklarazio baten bidez.
50b) Egintza positibo argi batez.
50c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
50d) a) eta b) erantzunak ez dira zuzenak.

**51 EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 ERREGELAMENDUA, 2016KO APIRILAREN 27KOA, DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ PERTSONA FISIKOEN BABESARI ETA DATU HORIEN ZIRKULAZIO ASKEARI BURUZKOA.
ZER ESKUBIDEK EMATEN DIO AUKERA INTERESDUNARI DATU OKERRAK ZUZENTZEKO EDO DATU OSATUGABEAK OSATZEKO?**

- 51a) Zuzentzeko eskubidea
- 51b) Irispidea izateko eskubidea
- 51c) Eguneratzeko eskubidea
- 51d) Aurka egiteko eskubidea

**52 LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUA.
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK DIRA:**

- 52a) Administrazio publikoei ordaindutako zerbitzuak ematen dizkietenak idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker.
- 52b) Administrazio publikoentzat administrazio bakoitzaren arau espezifikotan definitutako zuzendaritza-funtzio profesionalak garatzen dituztenak.
- 52c) Izendapen baten bidez eta iraupen ez iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituztenak.
- 52d) Behar bezala justifikatutako beharrak eta urgentziak eraginda, karrerako funtzionarioei dagozkien betekizunak betetzeko izendatzen direnak.

**53 LANGILE PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUA.
ENPLEGATU PUBLIKOAK:**

- 53a) Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionalei men egin behar diete, edozein kasutan.
- 53b) Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionalei men egin behar diete, argi eta garbi ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira behintzat; horrelakoetan, berehala emango diote horren berri dagokion ikuskaritza-organoari.
- 53c) Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionalei men egin behar diete, argi eta garbi ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira behintzat; horrelakoetan, dagokion salaketa jarriko dute.
- 53d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**54 6/1989 LEGEA, EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARENA.
ADIERAZI ERANTZUN OKERRA. FUNTZIONARIOEK ESKUBIDEA DUTE:**

- 54a) Administrazio-karrerarako eta barne-sustapenerako.
- 54b) Sailean ebatzi gabe dauden helburu, antolaketa, funtzionamendu eta gaiei buruzko informazioa gertueneko agintari hierarkikoarengandik jasotzeko.
- 54c) Lanean segurtasun- eta higiene-arloko babes efikaza jasotzeko
- 54d) Espediente pertsonala nahi bezala ezagutu eta ikusteko.

- 55 6/1989 LEGEA, EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARENA.
HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA:**
- 55a) Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak proposatuta, hizkuntza-eskakizunak zehaztuko ditu, eta, aldiro-aldiro, hizkuntza-eskakizunak lanpostuei aplikatzeko irizpideak finkatuko ditu.
- 55b) Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak, Eusko Jaurlaritzak proposatuta, hizkuntza-eskakizunak zehaztuko ditu, eta, aldiro-aldiro, hizkuntza-eskakizunak lanpostuei aplikatzeko irizpideak finkatuko ditu.
- 55c) Lanpostuek hizkuntza-eskakizuna esleituta izan dezakete.
- 55d) Nahitaezko hizkuntza-eskakizunak euskararen ezagutzari eman ahal izango zaion balorazioa zehazteko balio izango du enplegatu publikoen hautapen-prozesuetan.
- 56 6/1989 LEGEA, EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARENA.
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK PRINTZPIO HAUEK BERMATUZ HAUTATUKO DITUZTE
LANGILEAK:**
- 56a) Publizitatea, berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna.
- 56b) Publizitatea, berdintasuna, merezimendua eta diskriminaziorik eza.
- 56c) Publizitatea, berdintasuna, merezimendua eta gardentasuna.
- 56d) Publizitatea, berdintasuna, merezimendua, gardentasuna eta diskriminaziorik eza.
- 57 1/2011 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, MAIATZAREN 24KOA, EUSKADIKO AURREKONTU-
ARAUBIDEAREN ARLOAN INDARREAN DIREN LEGE-XEDAPENEN TESTU BATEGINA
ONARTZEN DUENA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO
FUNDAZIO ETA PARTZUERGOEI APLIKATU BEHARREKO AURREKONTU-ARAUBIDEA
ARAUTZEN DUENA.
AURREKONTU-GASTUEN EGOERAK JASOTZEN DITU:**
- 57a) Ordainketa-kredituak, bakar-bakarrik.
- 57b) Konpromiso-kredituak, bakar-bakarrik.
- 57c) Ordainketa-kredituak eta konpromiso-kredituak.
- 57d) Kreditu globala.
- 58 1/2011 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, MAIATZAREN 24KOA, EUSKADIKO AURREKONTU-
ARAUBIDEAREN ARLOAN INDARREAN DIREN LEGE-XEDAPENEN TESTU BATEGINA
ONARTZEN DUENA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO
FUNDAZIO ETA PARTZUERGOEI APLIKATU BEHARREKO AURREKONTU-ARAUBIDEA
ARAUTZEN DUENA.
ORDAINKETA-KREDITUAK:**
- 58a) Ez dira mugatzaileak izango.
- 58b) Mugatzaileak izango dira.
- 58c) Aurrekontu-ekitaldia hasi baino lehen aldatu ahal izango dira.
- 58d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 59** **1/2011 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, MAIATZAREN 24KOA, EUSKADIKO AURREKONTU-ARAUBIDEAREN ARLOAN INDARREAN DIREN LEGE-XEDAPENEN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUENA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO FUNDAZIO ETA PARTZUERGOEI APLIKATU BEHARREKO AURREKONTU-ARAUBIDEA ARAUTZEN DUENA.**
ADIERAZI ERANTZUN OKERRA. AURREKONTU-EXEKUZIOAREN ERREGULAZIOA PRINTZIOPIO HAUETARA EGOKITUKO DA GASTUEI DAGOKIENEZ:
- 59a) Etengabeko administrazio-kontrolaren printzipioa.
59b) Dokumentu-justifikazioaren printzipioa.
59c) Arduradunek urrats guztiak bete dituztela idatziz jasotzea eskatzen duen printzipioa.
59d) Arduradunek urrats guztiak ustez bete dituztela jasotzea eskatzen duen printzipioa.

- 60** **1/2011 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, MAIATZAREN 24KOA, EUSKADIKO AURREKONTU-ARAUBIDEAREN ARLOAN INDARREAN DIREN LEGE-XEDAPENEN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUENA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO FUNDAZIO ETA PARTZUERGOEI APLIKATU BEHARREKO AURREKONTU-ARAUBIDEA ARAUTZEN DUENA.**
ZEIN DA ERANTZUNIK OSATUENA? GASTU-EGOEREK JASOKO DITUZTE:
- 60a) Konpromiso-kredituak, onartu diren aurrekontu-ekitaldiaren ondorengoetan gauzatu beharreko ekintzak finantzatzeko hartu beharreko obligazio juridikoei aurre egiteko direnak.
60b) Konpromiso-kredituak, onartu diren aurrekontu-ekitaldiaren ondorengoetan gauzatu beharreko akzioak finantzatzeko hartu beharreko betebeharrak juridikoei aurre egiteko direnak, horretarako dagokion ordainketa-kreditua egina dagoela.
60c) Konpromiso-kredituak, onartu diren aurrekontu-ekitaldiaren ondorengo bi ekitaldietan, gutxienez, gauzatu beharreko ekintzak finantzatzeko hartu beharreko betebeharrak juridikoei aurre egiteko direnak, horretarako dagokion ordainketa-kreditua egina dagoela.
60d) Konpromiso-kredituak, onartu diren aurrekontu-ekitaldiaren ondorengo hiru ekitaldietan, gutxienez, gauzatu beharreko ekintzak finantzatzeko hartu beharreko betebeharrak juridikoei aurre egiteko direnak.

ERRESERBAKO GALDERAK

- 61** **4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. ZEHARKAKO DISKRIMINAZIOA DAGO (SALBU ETA JUSTIFIKATUTA DAGOENEAN SEXUAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN IRIZPIDE OBJEKTIBOEN ARABERA):**
- 61a) Pertsona bat beste bat baino okerrago tratatzen bada sexuarengatik edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrengatik.
61b) Neurriek justifikazio objektibo eta arrazoizko bat badute, nahiz eta tratatu ezberdina eragin gizon eta emakumeen artean.
61c) Botere publikoek ez dutenean inolako laguntza edo dirulaguntzarik ematen sexu-arrazoiengatik diskriminatzaileak diren jardueretarako.
61d) Itxuraz neutroa den ekintza juridiko, irizpide edo praktika batek sexu bereko kideen proportzio askoz handiagoari kalte egiten dionean.

- 62 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. ZEINI DAGOKIO ONARTZEA GENEROAREN ARABERAKO INPAKTUAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA EGITEKO JARRAITU BEHARREKO ERREGELAK EZARTZEN DITUZTEN ARAUAK EDO GIDALERROAK?**
- 62a) Euskal administrazio publikoen mende dauden ente publikoei.
62b) Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeari
62c) Eusko Jaurlaritzari
62d) Euskal administrazio publikoen mende dauden organismo autonomoei.
- 63 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATEAN, NOIZ AMAITUKO DA EPEA URTETAN JARTZEN BADA?**
- 63a) Epearen amaierako urtean, egintzaren jakinarazpena, argitalpena edo administrazio-isiltasuna gertatu den egunaren biharamunean.
63b) Epearen amaierako urtean, egintzaren jakinarazpena, argitalpena edo administrazio-isiltasuna gertatu den egun berean.
63c) Epearen amaiera-data zehatza espresuki adierazi beharko da prozeduraren arau erregulatzaillean baldin eta, kontuan hartuta hilabete guztiek ez dutela egun-kopuru bera, epeak amaitu behar badu, epearen amaierako urtean, ez egintzaren jakinarazpena, argitalpena edo administrazio-isiltasuna gertatu den hilabetean, beste batean baizik.
63d) Azken eguna ez bada balioduna, ezin izango da, epearen amaierako urtean, epea luzatu egintzaren jakinarazpena, argitalpena edo administrazio-isiltasuna gertatu den hilabetetik aurrera.
- 64 39/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARENA. INFORMAZIO PUBLIKOA ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEAN:**
- 64a) Administrazio-prozedurari aplika dakiokkeen legerian espresuki aurreikusi behar da informazio publikorako aldia.
64b) Izapide horretan agertu ezean, interesdunek ezin izango dituzte errekursoak aurkeztu prozeduraren behin betiko ebazpenaren aurka.
64c) Izapide horretan alegazioak eta oharra aurkeztu dituzten interesdunek prozeduraren behin betiko ebazpena errekurritu dezakete, baina errekurtsio horretan ezin izango dituzte sartu alegazio eta oharretan adierazi ez zuten arrazoirik edo haien aurka doan bestelakorik.
64d) Informazio publikoaren izapidean agertzeagatik ez da inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen.
- 65 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa. interesdunak ez badu adostasunik ematen datu pertsonalen tratamendurako:**
- 65a) Tratamendua ez da zilegia izango.
65b) Datuak ezin izango dira tratatu nahitaezko adostasuna eman arte.
65c) Tratamendua zilegia izango da Erregelamenduaren 6. 1. artikuluko gainerako baldintza guztiak betetzen badira.
65d) Tratamendua zilegia izango da Erregelamenduaren 6. artikuluko baldintzetakoren bat betetzen bada.

